

# B

BARREN

TOKIKOM



# Argiaren indarra

Udako solstizioa

# TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

## ELGOIBARKO IZARRAREKIN

15:30etatik aurrera, jendea etorri ahala hasiko gara bazkaria ematen  
Sigmako aparkalekuan

### MENUA:

- Entsaladilla errusiarra
- Masailak saltsan
- Izozkia
- Kafea eta txupittoa (edariak: ura, sagardoa eta ardoa)

15€

Elgoibarko  
Izarrako  
bazkideek

17€

Bazkide ez  
direnek

Trago luzeak: 3,50€

Zoro-zozketa

Spotykaraokea



Izenematea **Elgoibarko Izarran.**  
Izena emateko azken eguna: **uztailaren 27a.**



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO  
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika  
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea  
Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,  
Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren  
Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi,  
Ima Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA  
Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE  
GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEAK:



## LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiKa!



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### On egin!

Elgoibarko eta Mendaroko 70 etxetara iritsi dira aste honetan Nafarroako hegoaldeko kontserba loteak, Errigora ekimenaren bidez. Guztira, 2.320 kontserba poto eskatu dituzte elgoibartarrek eta mendarotarrek. Egia esateko, ez genekien kanpaina honen enrantzuna nolakoa izango zen, baina jendeak ondo enrantzun du gurean, eta pozik gaude.

Xume-xume da gure asmoa: hemengo produktuak eguneroko kontsumo ohituretara ekarri nahi ditugu. Kontsumo arduratsua gogoratu nahi dugu azken batean. Horregatik, produktuak ekoizleengandik geure etxetara zuzenean ekartzeko sare erraldoi bat antolatzen ari gara Euskal Herri osoan.

Eskerrak eman beharrean gaude modu batean edo bestean lagun izan gaituzuen guztioi: lantokian eskariak batzeaz arduratu zaretenoi, zuen tabernetan eskaera orriak eta kartelak jartzen laga diguzuenoi edota kamioia deskargatzen jardun duzuenoi.

Kontserbak eskuratu dituzuenontzat ere gure eskerrik beroenak. On egin diezazuela!

**Elgoibarko Errigora** ◀

### Elgoibarko herriari

Elgoibarko Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten konpartsa kideok urteak daramatzagu Elgoibarko jai eta ospakizunak alaitzen, umeei irribarreak ateratzen eta korrikaldiak eragiten. Ziur ibilbide honetan zehar akatsik ere egingo genuela; akabo ba, pertsonak gara! Baina geure onena ematen saiatzen gara kalera ateratzen garen bakoitzean. Trinitateetan gertatutakoaren ostean, ordea, azalpen batzuk ematera behartuak sentitu gara. Izan ere, guraso batek buruhandi bati eraso egin eta zauriak eragin zizkion, honek bere haurra beldurtu zuela leporatuta.

Salbuespen bat izan da, eta ez genuke maximizatu nahi. Baina bada sintoma bat azken aldian guraso batzuek hartu duten jarrerarena, bat baino gehiago haurrak beldurtzen eta bortitzegi jotzen ditugula kexatzera eraman duena. Lehenik eta behin, gogorazi nahi genuke buruhandiek haurrak beldurtzea eta haiei korrika egina-raztea dutela helburu, indarkeria errealizatuaren adierazpide diren heinean. Gure inguruan dabil-tzan haur eta gurasoek kontziente izan behar du-te horretaz. Dena den, azpimarratu nahi dugu

erabiltzen ditugun puxikek ez dutela minik ematen, zarata atera arren. Gainera, haurren adina ere neurtzen dugu, horren arabera indarrez jostzeko; eta benetan sufrizten ari diren horiengana ez joaten saiatzen gara. Ez gara umeak traumatizatzea afizio duten sadikoak.

Bestalde, erraldioen kasuan, distantzia bat behar dugu horiek segurtasunez dantzatu ditzagun; ukitu eta norbait jo edo norbaiten gainera eroriz gero, ezbehar larriak eragin ditzakegu eta. Badakigu haurrek erraldioetatik ahalik eta hurbilen joan nahi izaten dutela; baina eskertuko genuke, helduek segurtasun neurri hori mantentzeko ahalegina ere egingo balute.

Azkenik, eskerrak eman nahi genizkieke, Trinitateetako gertakariaren ostean, erasotuari lagundu ziotenei, eta ondoren, babesa eskaini ziguten guztiei.

Ez gara nor gurasoei esateko nola hezi behar dituzten beren haurrak, baina gure lanarekiko ulerkortasuna eta errespetua eskatu nahi genuke. Aholku hauek jarraitu eta denon artean konpartsa kideon lana erraztu dezagun, elgoibartarrok beste urte askoan erraldoi buruhandi eta zezenzikletekin gozatzen jarraitzeko!

**Haritz Dantzari Taldea, Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa eta Kultura Saila** ◀

### 60 + Programako Unai Arrieta Irakasleari

San Roken gora pausoko  
Mintxetaraino saltoka  
podometroa jarri gabiltza  
gu norgehiagoka.  
Malgutasuna, oreka  
indarrarekin borroka,  
jardun fisikoaren onurei  
gogotsu txaloka. (bis)

Jubilatuak gara bai,  
guk aktiboak izan nahi  
oso egoki azaltzearen  
makinatxo bat gai.  
Beti jator eta lasai,  
baita ere oso alai,  
guztiagatik, bihotz-bihotzez,  
mila esker, Unai. (bis)

Doinua: "Mendian gora"

**60+ jarduera fisiko ikasle taldeak** ◀

## Erretratu zaharra



1948

Aste honetako erretratu zaharra 1948. urtekoa da, eta argazkian ageri diren neskatilek 12 bat urte zituzten orduan. "Acción católica" zenaren insigniak banatu zizkieten egun horretan, eta banderari zin egin zioten. Gogora ditzaugun zeintzuk diren neska horiek:

**Goian:** Lucia Heriz, Mari Carmen Garate, Julia Gabilondo (†), Inacita Regil, Tere Gabilondo (†), Esther Barrutia, Marivi Azpiri. **Erdian:** Maria Ulazia, Cristina Goikoetxea (†), Mari Carmen Gabilondo, Maritxu Arriola (†), Teodora Larreategi (†), Mari Tere Arregi, Marga Gabilondo, Mari Cruz Zuazubizkar. **Behean:** Blanca Beristain, Marivi Juaristi, Mari Carmen Azkue, Mari Tere Elkorro-Iribe (†), Lurdes Alberdi eta Cristina Lizundia.

ESKERTZA

## GARBIÑE IRIONDO ARISTONDO



*Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Familia

2015eko ekainaren 13an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





**Bidea ixtea ez da irtenbidea:** "Intxarbakuntzako al-dapa amaieran harri batzuk erori ziren orain dela zenbait aste, eta ordutik inguru hori zinta batekin itxita dago. Uste dugu hori ez dela arazoa konpon-tzeko modua, eta badela gauzak behar den bezala egi-teko garaia".



**Merkatu plaza atzeko zubian belarra oso luze dago:** "Merkatu plaza atzeko zubian belarra oso luze dago, eta bidea gero eta estuago dago. Belarraz gain, sasiak eta asunak ere ugari-tu egin dira, eta oinezkoentzako pasabidea gero eta itxiagoa da. Eskertuko genuke belarra moztu eta bidea lehenbailehen gar-bitzea. Bide horretan jende asko ibiltzen da, eta azkenaldian bi-dea nahiko zikin dago".



**Txalo bero bat Atxutxia-maikari:** "Txalo bero bat eman nahi diogu Atxutxia-maikari, domekan antolatut zuten irteeragatik. Pasaiara egin genuen familia-irteera, eta primeran pasatu genuen, bai umeez eta baita gurasoek ere. Hurrengo irteeraren zain gaude dagoeneko! Mila esker, eta se-gi horrela!".



Zuen kezak, galderak edo txalok bigaitzeko:  
-barren@elgoibarkoizarra.eus 943 744 112

## GARBIÑE IRIONDO ARISTONDO



2015eko ekainaren 13an hil zen

*Koadrilan gaude zerura begira,  
bihotza dar-dar, begietan malkoa.  
Zure maitasun gabe, bizitza hau  
ez da izango lehen bezalakoa.  
Esaera zaharrak dioen bezala,  
"urak dakarrena urak daroa",  
betiko gurekin geratuko da,  
Garbiñe, zuk emandakoa.*

Koadrilakoak



## Bidegorri sarea eraikitzea izan da herritarrek eurek Debabarrenean egindako proposamenetan lehenetsi dutena

52 proposamenen zerrendatik hamar aukeratu zituzten herritarrek bilera irekian

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza prozesu bat abiatu zuen aurrerontuko bi milioi euro Debabarrenean zertan erabili erabakitzeke, eta apirila eta maiatzean zehar batzar irekiak egin dituzte herrietan. Era berean, proposamenak Internetez egiteko aukera ere eman zuten. Guztira, 75 proposamen egin zituzten herritarrek gure eskualdean, baina horietako batzuk atzera bota zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak, ezarritako bi baldintza nagusiak betetzen ez zituztelako: gaia Foru Aldundiaren eskumenekoa izatea eta eskualde izaera edukitzea; hau da,

herri bat baino gehiagotan garatzea.

Azkenean, 52 proposameneko zerrenda jarri zuten mahai gainean, eta herritarrek eurek horietatik hamar aukeratzeko aukera izan zuten hilaren 11n Elgoibarren egin zuten batzar irekian. Honako hauek izan dira herritarrek lehenetsi dituzten egitasmoak: Debabarreneko bidegorri sarea eraikitzea; Geoparkearen ikuspegiak zabaltzea, paisaia antropologikoa garatuz (karobiak, txondor plazak, elur zuloak) turismo alternatiboa bultzatzeko eta mantenua hobetzeko; eskualderako ur kirolak praktikatzeko

gune bat bultzatzea Debako itsasadarrean, Reiner antzinako enpresa dagoen tokian, Mutrikuko ertzean; mendi-bideak eta herri-bideak berreskuratzea eta bide berriak egitea; energia burujabetzaren bidean urratsak ematea; Deba ibaiaren estuariorako Plan Berezia garatzea; Debabarreneko bertako eta kalitatezko produktuen kontsumoa eta produkzioa sustatzea; dolmenen ibilbideren inguruko proiektu integrala gauzatzea; ekonomia zuria indartzeko planak garatzea eta kooperatibak bultzatzea mendekotasun sektorean.

### Gaur ere egongo da Pintxo Lehiaketako mokaduak probatzeko aukera

Asteartean hasi zuten Elgoibarren pintxo lehiaketa eta gaur 22:00ak arte egongo da propio lehiaketarako prestatu dituzten mokadutxoak dastatzeko aukera. Guztira, 18 tabernak parte hartu dute aurten lehiaketan, iaz baino hamalau gutxiagok, eta aurrekoetan legez, bi sari banatuko dituzte antolatzaileek: Epaimahaiaren Saria eta Herritarren Saria. Goizez eta arratsalde-iluntzez egongo da gaur pintxook probatzeko aukera: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldez 19:00etatik 22:00etara.

### Ikasle eta ikasle ohi aipagarrienak nabarmendu dituzte IMH Sarietan



Heziketa zikloetako diplomak banatu zituzten joan zen ostegunean IMHn, eta ekitaldi hori bera baliatu zuten 2015eko IMH Sariak banatzeko. Ikasle ohi aipagarrienaren saria Egoitz Gurrutxaga elgoibartarrak jaso zuen eta ikasle aipagarrienaren saria Endika Vazquez eibartarrak. Eredu Dualeko saria, berriz, Unai Alonso elgoibartarrak jaso zuen eta eta ikasle aipagarrienaren atalean, Adolfo Mujika nabarmendu zuten. Bi aipamen berezi ere banatu zituzten, baina. Iker Iraeta eta Andoni Luque eibartarrak jaso zituzten, Ikan enpresaren sortzaileak.

## Elgoibar Ikastolak DBHrako EKI proiektu digitalaren garapenean hartu du parte



Elgoibar Ikastolak DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako EKI proiektu digitalaren garapenean hartu du parte. Azken bi ikasturteetan modu esperimentalean probatu dute EKI digitala Arizmendi, RM Azkue, Haurtzaro, San Fermin eta Elgoibar ikastoletan. Ikastetxeotan, DBHko lehen zikloko ikasleek ez dute eskola libururik erabili: eduki digitalen bidez eman dituzte eskolak. Astelehenean aurkeztu zuten hedabideen aurrean Ikaselkar argialetxeak sortutako EKI digitala, EKI proiektuaren bertsio guztiz digitala dena.

Datorren ikasturtetik aurrera, beraz, bi modutara gelaratuko da Euskal Curriculumean, kompetentzietan eta integrazioaren pedagogian oinarritutako ikasmaterial berri eta berritzailea: duela bi ikasturte abiatutako EKI (papera eta digitala konbinatzen dituen) eta EKI digitala (guztiz digitala dena).

Asteleheneko prentsaurrekoan, Ikaselkarreko arduradun Mikel Arrizabalaga eta Dani Maizak, eta Elgoibar ikastolako zuzendari Jabier Larrañagak eta Oiartzungo Haurtzaroko irakasle Josu Arotzenak xehatu zituzten EKI proiektuaren eta EKI digitalaren ezaugarriak. Bideoa ikusteko eta Haurtzaro ikastolan EKI digitalarekin azken bi urte hauetan egin duten saioak eman duenaz Josu Arotzenak atera dituen ondorioak irakurtzeko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus).

### Euskotrenek zerbitzu bereziak jarriko ditu etzi Gure Esku Dagoren jairako

Ekainaren 21eko autobus zerbitzua indartuko du Euskotrenek. Zerbitzu berri hauek jarri dituzte:

8:30 Eibar-Donostia (AP8)

9:30 Zumaia-Donostia (N634)

10:30 Ermua-Donostia (AP8)

10:30 Zumaia-Donostia (N634)

20:00 Donostia-Zumaia (N634)

20:30 Donostia-Ermua (AP8)

21:00 Donostia-Zumaia (N634)

22:00 Donostia-Ermua (AP8)

22:30 Donostia-Zumaia (N634)

### Gaur da azken eguna Gure Esku Dagoren ekitaldirako sarrerak herrietan erosteko

Gure Esku Dagok etzi, igandean, Donostian egingo duen ekitaldirako sarrerak gaur ere erosi ahal izango dira Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, 17:00etan jarriko dute mahaia, Kalegoen Plazan, baina Pitxintxun eta Gorostizan ere erosi ahal izango dira. Mendaron, berriz, 18:00etan jarriko dute salmentarako mahaia, Herriko Enparantzan. Herri batzordeek jarriko dituzten mahai horietan, sarrerez gain, egun horretan Donostiara joateko autobusetarako txartelak ere erosi ahal izango dira eta baita propio egun horretarako sortu dituzten kamisetak ere.

Mendarotik 10:00etan irtengo da autobusa igandean, eta 20:15etan itzuliko da, eta Elgoibartik joan nahi duenak bi aukera izango ditu: goizez, 10:00etan, eta arratsaldez, 15:30ean. Itzulikoa 20:00etan izango da.



ESKERTZA

## JOSE ELUSTONDO ETXANIZ

*"Upaitza-Goiko"*

2015eko ekainaren 15ean hil zen, 81 urte zituela. Hileta elizkizuna domekan, ekainak 21, goizeko 10:00etan Elgoibarko Sallobenteko elizan zango da. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



# ONGIETORRIA UDARI



Ekainaren 21ean da aurten udako solstizioa ipar-hemisferioan, udaberriari agur esan eta udan sartuko garen eguna, nahiz eta Europako tradizioak 23ko gauarekin, San Joan gauarekin, lotu ohi duen, kristautasunaren eraginez. Usadioak dio eguzkiak, bizitzaren jainkoak, zeruko goia jotzen duela egun horretan eta gizakion bizimodua errazagoa egiten duela horrek, eguzkiak ordu gehiagoz argitzen/berotzen duelako. Biziaren momentu gori hori oinarrizko sinbologiako elementuekin adierazten da Europan, uraz eta suaz, gehienbat. Eta halaxe ospatu nahi du aurten Elgoibarko Izarrak ere urteko egunik luzeena: suaren bueltan, elkarrekin eta jai-giroan. Berez, ekainaren 21ean bertan egin nahi zuten estreinako Ekigain jaia, baina egun horretarako Gure Esku Dagok Bilbo, Baiona, Gasteiz, Iruñea eta Donostia betetzera deitu duenez, ekainaren 23an, martitzenean, egingo dute estreinako Ekigain jaia.

Ainara Argoitia

**M**agikoa izan ohi da adjektiborik erabiliena San Joan bezperako ospakizunei erreferentzia egiten dieten albistetan, eta badu, bai magikotik gau horrek, gure arbasoen sinismenei kasu eginez gero. Badu, eta bazuen, kristautasunak udako solstizioa San Joan bataiatzailearen figurarekin lotu eta ekainaren 23an ospatuko zela esan aurretik ere. Izan ere, Euskal Herrian —eta Europa osoan— antzinako sasoietatik ospatu izan da udako solstizioa, udaberriatik udagoienerako (uda) saltoa gertatzen den eguna. Berez, fenomeno natural bat da udako solstizioa. Udako solstizioan, Lurraren inklinazioak makurdura handiena hartzen du, eta horren ondorioz, eguzki-izpiak zuzenean edo perpendikularki iristen dira ipar-hemisferioko lurretara eta eguzki-ordu gehien dituen eguna izaten da. Horregatik, antzinako herriek egunak gaua garaitu izana ospatzen zuten, suaren bueltan.

Sua zen eta da gaur ere sinbolorik erabiliena solstizioetan eta ekinozioetan, hau da sasoi batetik bestera pasatzeko egunetan. Eguzkiaren sinboloa ere bada sua, eta Eguzkiaren antzera, beroa eta argia ematen dizkigu, bizia errazteko oinarrizkoak diren bi osagai. Era berean, sua garbitzailea ere bada, eta hain justu ere, horixe da, beharbada, bere esanahirik zabalduena. Suak amaiera ematen dio garai bati eta hasiera beste bati, eta izan ditugun traba, ezbehar eta gainerako txar guztiak erretzeak zoriontsu izatea errazten digu. Era berean, bekatuak ezabatu eta arima purifikatzeko ere balio zuela pentsatzen zuten garai



San Joan zuhaitza jarriko dute Altzolan (artxiboko argazkia).

batean, eta horregatik guztiagatik suaren argitara batu ohi gara udako solstizioan. Etxetik gertueneko su-metara inguratu eta hara bildutako guztiak batera dantzan eta kantuan egitea da gure bueltan usadiorik zabalduena, eta jakina, ausartuz gero, suaren gainetik salto egitea ere bai, suak urtean zehar gertatu zaizkigun txar guztiak eraman eta gure etsaiengandik babes gaitzan. Asko dira sinismen horri erreferentzia egiten dieten kantu eta esaerak, eta horietako bat da, esate baterako, Nafarroako Beintza Labaienen suaren bueltan esan ohi duten hau: “*Sarna fuera / gaixtuk kanpora! / onak barrenera*”.

Suaz gain, baina, ura ere elementu oso erabilia da udako solstizioetako ospakizunetan. Solstizio biharamuneko egunsentiko urak ahalmen berezia zuela uste zuten gure arbasoek. Egun horretan bildutako urak gaixotasunak sendatzeko balio zuela uste zuten, eta oso zabaldua zegoen egunsentiko ihintzetan animaliak larre bustira ateratzea. Aralar, Urbasa, Gorbea eta inguruko mendietako artzain batzuk, esaterako, mantentzen dute oraindik ere egunsentian bildu, animaliak larre bustira atera, eta lehen eguzki-izpien zain egoteko ohitura. Egunsentian Lizar adaxkak eta Eguzki-loreak batzeko usadioa ere oso zabaldua dago Euskal Herrian. Ateburuetan edo etxeke atariaren alde banatan jartzen dituzte gero, etxea bera eta etxe horretan bizi diren guztiak babesteko. Eguzki-loreak izena ere berezia du, euskaraz behinik behin. Eguzkiaren trazako lorea da —hortik datorkio izena—, eta hortaz, argia-



ren sinboloa ere bada tradizio zaharrear. Horregatik jartzen zuten eta dute oraindik ere askok ateburuetan, gaeuz, ilunetan ibili ohi ziren sorginak eta izpirituak uxatzeko.

Naturako elementu horiek gurtzeko ohitura oso da aspaldikoa gu-

rean, eta oraindik ere, herri askotan [Altzolan bertan ere bai], enbor garaiak tentetzen dituzten plazan, oineztarrietatik eta abarretatik babesteko baliagarri izango zaizkielakoan. 21:00etan zutituko dute aurten enborra, eta 22:00etan piztu ko dute San Joan sua Altzolan.



## ELGOIBARKO IZARRAREN EKIGAIN JAIA ETA GEHIAGO

Urteko egunik luzeena Sallobenten ospatuko du aurten Elgoibarko Izarrak, suaren bueltan. Elkarteko bazkide eta herritar guztiak gonbidatu dituzte, elkarrekin eta suaren bueltan udari ongietorria egitera. Ekainaren 23an izango da ospakizuna, eta hauxe izango da egitaraua:

- 19:00: Maalako parkean elkartuko dira, handik Sallobentera joateko. Oinez egingo dute bidea, kalejiran. Oinez joateko aukerarik ez dutenez 20:00etarako jarri dute Sallobenten batzeko ordua.

- 20:30: Afari-merienda. Bakoitzak berea ereman behar du, baina edariak eta edalontziak Elgoibarko Izarrak jarriko ditu salgai han bertan.

- 22:00: Sua piztuko dute, eta haren bueltan kantuan eta dantzari arituko dira. Suaren gainetik salto ere egingo dute hala nahi dutenek.

- 23:00. Etxerako bidea hartuko dute. Bueltakoa ere oinez egingo dute, kalejiran. Frontala edo kopeta-argia eramatea kome-ni dela aurreratu dute antolatzaileek.

### ELGOIBAR

Elgoibarren IMHko bidegurutze eta Goiko Errota zubiaren bueltan piztuko dituzte suak.

### ALTZOLA

Udako solstizioarekin batera ospatzen dituzte Altzolan jaiak, sanjoanak, eta ohitura den legez, arbola sartzearekin hasiko dituzte jaiak, 21:00etan. Sua, berriz, errekan piztuko dute, 22:00etan. Jaietako egitarau osoa agendan daukazue.



## ARRIETA-SORAIZ SENDIKOEN OSPAKIZUNA

Elgoibar eta Mendaro inguruetan ere oso zabaldua dago udako solstizioa suaren bueltan ospatzeko ohitura. Etxe gehienetan, hori bai, ekainaren 23ko gauean piztu ohi dituzte suak, horixe delako kristautasunaren eraginez Europako tradizio zaharrear zabalduena. Gau horretan mendialdera begiratu gero, baserri inguru askotan ikusiko ditugu su-metak, baina kalean ere, indar handia hartu du jai honek azkeneko urteotan. Gau magikoa da inondik inora ekainaren 23koa, eta modu berezian bizi duten familiak ere badira gure bueltan. Arrieta-Soraiz sendia da horietako bat. Albitxurin duten txabolan ospatu ohi dute udaren etorrera, familiako guztiek elkarrekin.

“Berezia, oso berezia” izaten dela aipatu du Arantxa Arrietak, solasaldia hasi eta bat, “gutako inork galdu nahi izaten ez duena”. Urteetan ospatu dutela dio, eta ez daudela galtzen lagatzeko prest. “Bizi-osoan ospatu dugu, eta jarraitzen dugu gurasoei ikusi eta ikasitakoa egiten”. Ospakizun xumea izaten dela nabarmendu du, “etxe askotan egiten dutenaren trazakoa”, baina familia hazten doan hein berean, aberasten doala jai bera ere. Familia-giroko jai horrek baditu “beti-beti” errepikatzen diren hainbat osagai edo ezaugarri: afari-merienda, sua, kantua eta dantza. Txabolan bertan egiten dute mokadua senitartekoei eta iluntzen duenean pizten dute sua, txabolako aparkalekuan. “Jon, anaia gazteena, ibiltzen da arbola adarrak-eta batzen astean zehar”, dio Arantxak. Ondoren, euren aita zenak, Juan Arrietak, abestu ohi zuten bi kantu abesten dituzte, eta aldi berean, eskutik helduta, suaren bueltan dantzatzen dute senide guztiek, txistuak lagunduta.

*San Juan de la Porta Letaña* da etxeok Juan Arrietarengandik jasotzen duten kantuetako bat. Kantu hori oso zabaldua dagoela dio Oier Araolazak, Arantxa Arrietaren seme eta antropologoak, eta gaur beste nonbaiten kantatzen den jakin ez arren, kantu horren aldaera asko jasotzen direla nabarmendu du. Kantuaren bi zati dira Arrietatarrek urtero-ur-



Arg.: Oier Araolaza

tero San Joan egunez kantatzen dituztenak, eta honelaxe dio letrak: *San Juan de la Porta Letaña / zapatu arratsaldian / hamalau atso tronpetak jotzen / motroilo baten gainean (bis). Hurra, hurra, hurra Sanjuanetan / dantzan egingo dogu lfar Haizetan*. Propio sanjoanetan kantatzen den kantua da, eta liturgiako pasarte/mirari bati egiten dio erreferentzia, hain justu ere Dionisio enperadoreak San Joan bataiatzailea Porta Latinan —Erromako hego-ekialdeko sarrera— olio iraikineta hiltzera zigortu, eta hil orde, San Joan guztiz sendatu zeneko mirariari. San Juan de la Porta Letaña, berriz, latineko *Ante Portam Latinam* honen aldaera okerra da.

Kantu horri beste kantu batekin jarraitzen diote Arrietatarrek, biga-

rreren hau ere Juan Arrieta zenarengandik jasotakoa. Urtean birritan kantatzen zuten *Horra hor goiko* kantu hori: Gabon zaharretan, kanpaikadekin batera, eta sanjoan bezperan. Elgoibarko kantutegian jasota dago kantu hori, eta Azkuek berak ere bi altzolatari jaso zien, duela 100 bat urte: Iriondo anaiei Honela dio kantuak: *Horra hor goiko hariztitxo baten / kukuak umiak egin ditu aurten / kukuak egin eta aberotsak jan / hauxe gure kukuaren zoritxarra zan*. Kantu hau, beharbada, ezaguna izango dute elgoibartarrek, Nazioarteko Folklore Jaialdian ere kantatu izan dutelako behin baino gehiagotan, korroko dantzaren batean.

Suaren bueltako ospakizuna etxekoek eurek girotzen dute musika-rekin. "Anaiak, Jonek, urtero eramaten du txistua eta urte askoan egun

horretan bakarrik jo izan du, gainera. Ilobek, Unaik eta Elurrek, eramaten dituzte soinua, atabala, eta gainerakoak, eta giro ezin politagoa sortzen da. Ospakizunaren leheneago parte, kantuena eta eskutik helduta dantza egitearena, urtero errepikatzen dugu, baina jaiak beti du bigarren parte bat, luzatzen dena denboran. Suaren gaintik salto egiten bukatzen dute gazteek, eta guk, zaharragoak, aldamenetik", aipatu du Arantxak. Biharamunean, berriz, Altzolara joan izan dira urteren batzuetan, erramu adaskak hartuta. Arrietarrek Altzolakoa zuten ama, eta Arantxak ondo gogoan du Altzolan bedeinkatutako adaska hori, garai batean, hori ateburuan jartzen zuela euren aita zenak, puntapax pare batekin josita.



## MENDARON, AKELARRE BATEN BUELTAN EMANGO DIOTE ONGI-ETORRIA UDARI

Udaren etorrera Akelarre baten bueltan ospatuko dute Mendaron aurten. Ludotekako eta Gaztelekuko haur eta gazteek piztuko dute sua, Herriko Enparantzan, baina ospakizuna arratsaldetik hasiko da. Egun horretarako, Jubilatuen Egoitza ondoko lokala apaintzen dihardute gazte eta hezitzaileek, kobazulo itxura ematen, hain justu ere. Hantxe hasiko dute akelarrea gaztetxoek, 18:00etan. Ez dute kobazulo horretan egosiko denaren berri eman nahi izan, baina aurreratu dute sorginen bilgune izango dela eta ipuin-kontalaria eta haurrentzako tailerrak ere izango direla bi orduz. Akelarrera sartu nahi duenak, hori bai, 2 euro ordaindu beharko ditu, bildutako diruarekin Sendavivara joateko asmoa dutelako gero, San Joan bezperako ospakizuneari parte hartuko duten herriko gaztetxoek.

Era berean, In Leikek eskulanak egiteko tailerrak eta sanjoanekin lotutako jolasak antolatu ditu arratsalderako, azkene-

ko urteetan egin ohi legez. 18:00etatik 20:00etara, frontoian izango dira hezitzaileak umeei aurpegiak margotu eta elkarrekin udari ongi-etorria egiteko prest.

Eguneko ekitaldi nagusia, suaren bueltan egingo da, baina, 22:30etik aurrera. Adar-hotsekin dei egingo diete gaztetxoek Akerbeltzi eta haren lagunei, eta hirugarren deiarekin batera, Trinitate baselizatik bera agertuko da Akerbeltzen segizioa, kandelen argitara. Ordurako plaza ilun-ilun egongo da, kaleko argiak ere itzailiko dituztelako, eta Trinitatetik dakarten suarekin piztuko dute su handia, plazan. "Une magikoa" izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Pertsonai mitologikoen laguntzarekin, urteetan Mendaroko plazan egin den udako solstizioko ospakizuna jantzi nahi izan dute herriko gaztetxoek, eta eurek hasiko dute suaren bueltako jaiak ere. Gaztelekuko eta ludotekako gaztetxoek hainbat dantza dantzatuko dituzte suaren bueltan, eta ondoren, su-garrak



txikitzen doazen heinean, gaintik salto egiteko aukera ere izango dute herritarrek, usadioak agindu legez.

### Garagartzako akelarre txikia

Herriko plazan piztuko duten sua ez da, jakina, San Joan bezpera egunez Mendaron argi egingo duen bakarra. Baserri askotan eusten diote etxe ondoan su-meta pizteko ohiturari eta azkeneko urteetan Garagartzako guraso talde batek bere akelarre txikia ere egin izan du auzoko plazan. 2012an egin zuten aurreneko aldiz, eta ordutik mantendu dute ohitura. Arratsaldez pinaburuak eta adaskak bildu, eta iluntze aldera piztu ohi dute su txikia. Uxatu nahi dituzten beldurrak eta txar guztiak paperean idatzi eta sutara bota ohi dituzte gero, suak erre ditzan. Ondoren, desio onak eskatu eta suaren bueltan dantzari egin ohi dute ume eta gurasoek.



Garagartzan iaz egin zuten ospakizuneko argazkia.

# Ane Beitia izango da Elgoibarko alkatea datozen lau urteotan, eta Sonia Garcia Mendarokoa

Zapatuan osatu zituzten Elgoibarko eta Mendaroko Udal Gobernuak

Zapatuan egin zituzten Udal Gobernuak osatzeko bilkura bereziak Elgoibarren eta Mendaron, eta ez zen sorpresarik egon. Elgoibarren, Ane Beitia izango da alkatea datozen lau urteetan, eta Mendaron, aldiz, Sonia Garcia.

## ELGOIBAR

12:00etan puntuan hasi zen Elgoibarko osoko bilkura, Fernando Suarez eta Maialen Gurrutxaga hautesi zaharrenak eta gazteenak gidatuta. Zinegotzi bakoitzak bere kargua hartu ostean, alkatea hautatzeko bozketak egin zuten. Hiru ziren alkatetzarako hautagaiak: Ane Beitia (EAJ), Jose Luis Ibartzabal (EHBildu) eta Nerea Alustiza (PSE-EE). Azken honek, baina, uko egin zion alkate hautagai izateari, eta bere alderdiak Ane Beitia babestuko zuela azaldu zuen. Hortaz, hamar botorekin, Ane Beitia aukeratu zuten Elgoibarko alkate. Jose Luis Ibartzabalek sei boto jaso zituen, eta zinegotzi batek boto zuria eman zuen. EAJk gehiengo osoz irabazi zituen Udal Hauteskundeak Elgoibarren, eta bederatzi zinegotzi lortu zituen. EHBilduk sei zinegotzi izango ditu, eta PSE-EEK, aldiz, bi.



*Gorka Garaizabal, Unai Arizmendiarieta, Andrea Arriola, Joseba Arrizabalaga, Bittori Zabala, Blanca Larrañaga, Joseba Osoro, Jon Peli Uriguen, Miren Arrate Arrieta, Fernando Suarez. Eserita: Maialen Gurrutxaga, Iosu Arraiz, Nerea Alustiza, Ane Beitia, Jose Luis Ibartzabal, Iñaki Larrañaga, Mireia Isasmendi.*

## MENDARO



*Iñigo Bastida, Borja Rodriguez, Aitor Basurto, Sonia Garcia, Irune Berasaluze, Iñaki Arregi, Anjel Mari Iriondo eta Maite Apellaniz. Zitoritz Urain falta da.*

Mendaron EHBilduk lortu zuen gehiengo osoa Udal Hauteskundeetan, eta beraz, EHBilduko zinegotzien botoei esker, Sonia Garcia izango da berriro ere alkate. Alkatetzarako bost boto jaso zituen Sonia Garcia, eta Irune Berasaluze EAJko alkatetzaileak lau boto eskuratu zituen. Mendaroko Udal Gobernuan EHBilduk bost zinegotzi izango ditu datorren legealdian, eta EAJk, aldiz, lau.

Maiatzean...

## JAIOTAKOAK

Janire Calleja Perez  
Maiatzak 8  
Alejandro eta Maria  
del Mar

Axular Berdonces Garcia  
Maiatzak 16  
Luis eta Itziar

June Iturricastillo Villar  
Maiatzak 12  
Aitor eta Nerea

Iker Sanz Esteban  
Maiatzak 20  
Eduardo eta Rebeca

Fatima Azzahra Mouahibi  
Maiatzak 22  
Ahmed eta Mina

Iñigo Silva Segura  
Maiatzak 27  
Eneko eta Ines

## HILDAKOAK

Matilde Zubia Arregi • 89 urte • Maiatzak 1  
Begoña Mendikute Elorza • 84 urte • Maiatzak 4  
Josefa Salegi Uria • 88 urte • Maiatzak 8  
Alejandro Ruiz Ortiz de Landaluce • 58 urte • Maiatzak 13  
Maria Esther Unzilla Ormaetxea • 83 urte • Maiatzak 18  
Anttoni Etxaniz Elorza • 76 urte • Maiatzak 18  
Rosario Arana Laskurain • 98 urte • Maiatzak 22  
Vicente Santos Gomez • 58 urte • Maiatzak 23  
Ana Maria Osoro Barrenetxea • 81 urte • Maiatzak 29

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK

NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak

Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekua) 635 756 295



## GARBIÑE IRIONDO ARISTONDO

*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,  
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.  
Zure indarrak emango digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*

Zure lankideak.



2015eko ekainaren 13an hil zen

# SANLO FESTA, eskubaloi denboraldia amaitzeko

Bukatu da eskubaloi denboraldia, eta aurtengo ekinaldiari amaiera emateko Sanlo Festa antolatu dute biharko. Eskubaloi egunak eta Sanlo festak bat egingo dute, eta egun osoan zehar eskubaloiari loturiko hainbat ekitaldi izango dira. Eskubaloiak Kalegoen plaza hartuko du goiz partean, eta gero, Sigmako aparkalekuan egingo dute bazkaria. Denboraldi amaiera balorazioak egiteko unea izaten da, eta horretarako, Cesar Arriola presidentea eta Vucinik Alkorta taldeko entrenatzailea ekarri ditugu erreportaje honetara.

Ainhoa Andonegi

## EGITARAUA

- 10:30etatik 13:30etara: Benjamin eta alebin mailako partidak Kalegoen Plazan.
- 12:30: Zapien banaketa, Udaletxeko arkupeetan.
- Ondoren: Poteo herrikoa
- 14:30: Bazkaria Sigmako aparkaleku estalian
- Bazkal ondoren: Urteko jokalarai alpagarrienei oroigarrien banaketa.
- Jarraian: Dantzaldia.



**CESAR ARRIOLA,**  
Sanloko presidentea

**“Ez da marka makala hamar mila biztanleko herrian  
300 bat jokalarai izatea eskubaloiari jokatzeko”**

“2014/2015 denboraldi bukaeran Elgoibarko Sanlo EKT-k denboraldiaren balantze positiboa egin du. Jokalariei dagokienez, kopurua mantentzen ari da azken urteotan: hamar mila biztanle inguruko herri batean 300 bat jokalarai izatea eskubaloiari jokatzeko, ez da marka makala. Talde kopuruarekin gauza bera gertatzen da: Hamalau talde federatu ditugu, eta beste hiru talde dabilta eskubaloi eskolan. Azken urteetako kopurua mantentzen ari gara, hein batean, klubak hazteko zailtasunak izan dituelako. Batetik, talde gehiagok ganoraz entrenatzeko tokirik ez genuelako, eta bestetik, entrenatzaileak lortzeko zailtasun handiak izaten ditugulako. Orain inauguratu berri dugun IMH kiroldegarekin lehenengo arazoa gaindituko dugu.

Kirol emaitzei begiratuz, maila oso ona eman dute gure taldeek kategoria guztietan: infantiletan, Gipuzkoako finalera heldu dira bai mutilak eta bai neskek; kadeteetan, mutilak Gipuzkoako txapelkun izan dira eta Euskadiko txapelketan jokatu dute, azkenengo urteetan lortzen ez zena. Nesketan, berriz, Euskadiko txapelkunorde izan dira eta Espainiako sektorea jokatu dute berriz ere, azken urteetan bezala. Agian jubenilak izan dira aurten kategoria zailena eduki dutenak, baina hala eta guztiz ere, jubenil neskek Gipuzkoako kopako txapelkunorde iza-

tea lortu dute. Senior mailan, berriz, gure taldeak sendo finkatu dira Nazional Mailan. Ikusten da kategoriarik neurria hartu diotela eta hurrengo urterako pausotxo bat gora ematea nahiko genuke, goiko multzoan borrokatzen egoteko.

Ezin ditugu ahaztu selekzioetako hautatzen dituzten jokalaraiak: Gipuzkoakora hogeit hamar jokalarai joan dira aurten, Euskadikora hamar inguru, eta Espainiakora kadeteetako jokalarai bat. Emaitza onak, dudarik gabe. Ekonomikoki ere denboraldi ona izan dugu, eta galerarik gabe bukatuko dugu urtea. Zenbakiak zehatz mehatz ekainaren 26an egingo den batzar nagusian azalduko zaizkie bazkideei.

Eta bukatzeko, eskerrak ematea nahi dugu astero-astero gure taldeak ikustera etortzen diren zaleei, haiei esker urte guztian giro polita izaten dugulako partidetan. Facebook eta Twitterretik jarraitzen gaituztenei ere, mila esker, sare sozialetan eskubaloi klub jarraituenetako bat izatera iritsi gara-eta!. Eta, nola ez, eskerrik asko baita ere laguntzaile eta babesle guztiei. Arrazoi hauek guztiak nahikoak direla uste dugu urtea positiboa izan dela esateko! Orain hurrengo denboraldia prestatzea tokatzen da”.

# Gojko Vucinic

ALKORTA TALDEKO ENTRENATZAILEA

**Vucinic Gojko (Montenegro, 1970) 2000. urtean fitxatu zuen Galiziako Cangas de Morrazo eskubaloitako taldeak, eta urtebete geroago Eibarrera iritsi zen, Arraten jokatzeko. Arrate taldeko atezaina izan zen taldea desegin zen arte, eta orduetik, Sanlon dihardu. Alkorta taldean jokatu zuen azken urteetan, eta Lehen Nazional Mailara igotzea lortu zuten. Gaur egun Alkorta taldeko entrenatzailea eta Sanloko harrobiaren arduraduna da.**



## “Eskubaloirako bizi naiz, eta eskubaloitik bizitzen saiatzen naiz”

### Noiz hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Oso gazte hasi nintzen eskubaloian jokatzeko, eta 15 bete nituen seniorretan jokatzeko nuen. Nire herrialdea orduan Jugoslavia zen, eta hango selekzioan ere jokatu nuen. Junior mailan munduko txapelkunak izan ginen! Liga txapelketa bat baino gehiago irabazi nituen han. Beti atezain postuan jokatu dut, eta atezain posturako fitxatu ninduten Espainiako Asobal ligarako. Hainbat urtez jokatu nuen Asobal ligan ere, eta hor oso maila altua dago. Orain, Montenegro sortu denean, zazpi urte ditu herrialdeak eta hango selekzioarekin ere jokatu izan dut. Bizi osoa daramat eskubaloian lotuta, nire pasioa da. Eskubaloirako bizi naiz, eta zaila den arren, eskubaloitik bizitzen saiatzen naiz. Zaila da eskubaloian profesionalen entrenatzaile izatea.

### Balkanetako herrialdeetako jokalariek asko daude eskubaloian liga desberdinetan jokatzeko. Zergatik dela uste duzu?

Kirolzale amorratuak gara, baina bereziki, oso konprometitua gara, eta oso serio hartzen dugu egiten dugun guztia. Lehiakorrak gara, eta irabaztea gustatzen zaigu. Oso gazte hasten gara entrenatzen, eta gogor egiten dugu lan, eta horrek laguntzen digu. Fi-

sikoki ere hemengoak baino altuagoak gara, eta hori ondo dator kigu eskubaloian jokatzeko.

### Noiz eta nola iritsi zinen Montenegrotik Euskal Herrira?

2000. urteko abuztuan Galiziara iritsi nintzen, Cangas de Morrazo taldeak fitxatuta. Urte hartan atzeritar eta komunitarioekin arazoak izan ziren zenbait taldetan, eta horrek eraginda Eibarko Arrate taldera iritsi nintzen, 2001eko urtarrilean. Taldea gustura agertu zen nirekin, eta ni neu ere pozik nengoen Eibarren, beraz, han geratu nintzen, arazo ekonomikoengatik taldea desegin zen arte.

### Nola iritsi zinen Sanlora?

Arrate taldea desegin zenean Juanma Lopez Sanloko entrenatzailea nirekin jarri zen harremanetan. Sanloko harrobiarekin lan egiteko eskatu zidaten, bereziki, mutilekin. Nesken eskubaloia indartsu zegoen Sanlon, eta mutilena ere maila berean jartzea nahi zuten. Proposamen interesgarria iruditu zitzaidan, eta Sanlora etorri nintzen. Hona iritsi nintzenezan jokatzera ere animatu ninduten, eta Alkortan egin nituen nire azken urteak. Oroitzapen oso ona daukat, izan ere, Lehen Nazional Mailara igotzea lortu genuen. Lorpen horren ostean erabaki nuen jokatzeari utzi eta entrenatzaile lanetan hastea. Orduetik Sanloko mutilen ha-



robia koordinatzen dut, eta gaztetxoek zenbait talde eta Alkorta entrenatzen ditut.

#### **Nola joan da aurtengo denboraldia?**

Goranzko joera batean gaude, eta ondo joan dela esango nuke. Iaz bosgarren lekuan amaitu genuen, eta aurten seigarren egin dugu, baina bi talde gehiago izan gara taldean, beraz, lau jardunaldi gehiago. Kirol mailari eustea lortu dugu, eta gainera, harrobiko jokalariek gazteei seniorrekin jokatzeko aukera eman diegu. Horretarako ari gara lanean, harrobiko jokalariek talde nagusira iristeko, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Jubeniletatik seniorren lehenengo taldera jauzi handia dago, eta horretarako tarteko talde bat daukagu: senior B taldea. Euren liga dute beste taldeekin lehiatzeko, eta harrobiko jokalarientzako aukera oso ona da.

#### **Zein da zure ustez Sanloren sekretua horrenbeste jende eskubaloira erakartzeko?**

Ilusioa da klabea. Ilusioa sortu dugu, eta horrek erakartzen du jendea. Nesketan, bereziki, maila oso ona izan du beti Sanlok, eta azken urteotan mutiletan ere maila ona ematen ari gara. Ilusio hori sortzeko eta gure helburuak lortzeko ezinbestekoa da lana, eta horretarako beharrezkoak dira elkarlana, konpromisoa eta borondatea, eta hori bikain betetzen dugu. Ni oso pozik nago Sanlok dituen boluntarioekin, bereziki, jokalariek gurasoek eskaintzen duten laguntzarekin. Horrez gain, jokalariek erakusten duten konpromisoa izugarria da, nesketan zein mutiletan. Serio hartzen dute eskubaloia, entrenamenduetara joateko konpromisoa dute, eta horrek guztiak emaitza onak lortzen laguntzen du. Elgoibarren eskubaloiaz hitz egiten da, jende asko etortzen da partidak ikustera eta herrian ere ilusioa sortu dugu. Herritarrek ondo erantzuten diote Sanlori eta Sanlobeer festa edo urte amaierako Sanlo Festa dira horren adibide.

#### **Nola sufritzen duzu gehiago, jokalarik ala entrenatzaile postuan?**

Bietan sufritzen da, baina sufritzeko modua desberdina da. Orain harrobiko jokalarientzat sufritzen dut, batez ere. Mutiko hauei bizitzako baloreak transmititzen saiatzen naiz eskubaloia bidez, eta eurek konpromiso handia erakusten dutenez, jarritako helburuak lortzen ez ditugunean pena hartzen dut. Adin horretan ilusioari eustea oso garrantzitsua da, eta partida bat galtzeak desilusio handia sortzen die. Seniorretan helduagoak direnez, haiengatik ez dut horrenbeste sufritzen. Jokalarik nintzela ere sufritzen nuen, baina orduan ar-

dura gehiagoren artean banatzen zen, baina entrenatzaile zarenen zara arduradun nagusia.

#### **Zer izan da eskubaloia eman dizun onena? Eta txarrena?**

Nire kirol ibilbidea errepikatuko nukeen galdetuko bazenit, baietz esango nizuke. Hobeto egin nezakeen, baina okerrago ere bai, eta pozik nago lortu dudanarekin. Herrialde asko ezagutu ditut, jende in-

teresgarri asko eta hori da eskubaloia eman didan politena. Txarrena, profesionaletan tokatu zitzaidan bizitzea. Arazo ekonomikoak dituztenean klub batzuk ez dituzte konpromisoak betetzen, eta hori ez da atsegina. Arraterekin gertatu zena izan da eskubaloian ezagutu dudana gogorra. Nire esku zegoen guztia egin nuen, baina ezin nuen gehiago egin.

#### **Gustura bizi zara Euskal Herrian?**

Bai, oso gustura nago. Ez dakit non bukatuko dudan, inoiz ez da jakiten bizitzak nora eramango zaituen, baina momentuz oso gustura bizi naiz hemen. Euskal Herria eta Montenegro oso antzekoak dira, bereziki, Gipuzkoa. Tamainaz antzekoak dira biak: Montenegrok 600.000 biztanle inguru ditu, eta Gipuzkoak 700.000, eta hura ere menditsua da, eta kosta ere badauka. Izaeraz ere antz handia daukagu: hasieran nahiko itxiak gara, baina behin koadrilan sartzen garenean, betirako lagun bat duzu.

#### **Zein helburu jarri dituzue datorren denboraldirako?**

Gustatuko litzaidake senior taldearekin mailaz igotzea, baina badakit horrek konpromiso eta ahalegin handia eskatuko liokeela klubari, beraz, ez da hori izango gure helburu nagusia. Ohorezko B mailara igoko ginateke, baina horri aurre egitea zaila izango litzateke. Beraz, egungo bidetik jarraitzea izango da helburua: mailari eutsi eta harrobiko jokalariei minutu gehiago ematen saiatuko gara. Harrobiarekin lanean jarraituko dugu, eta gustatuko litzazuke infantiletatik seniorretara bi talde izatea maila guztietan baita mutiletan ere. Infantiletan futbolak mutiko asko erakartzen ditu, eta gure zailtasuna izaten da urtero mutilen talde berri bat sortzea infantiletan. Nesketan ez daukagu arazo hori, eta mutiletan ere azken urteetan lortu izan dugu infantilen taldea sortzea.



## Elgoibarko eta Mendaroko 70 etxetara iritsi dira Nafarroa hegoaldeko kontserba loteak, Errigoraren bidez

Urruneko ordez, urte osoan hemengo jakiak kontsumitzeko deia egin dute Errigoratik

**K**ontserben kanpaina bukatu berri-tan, balorazio positiboa egin dute Elgoibarko Errigora batzordekoek orain arteko ibiliaz. Elgoibarko eta Mendaroko 70 etxetara iritsi dira Nafarroa hegoaldeko kontserba loteak, eta guztira, 2.320 kontserba-poto banatu dituzte Elgoibarren –90.000 kontserba ontzi baino gehiago Euskal Herri osoan—. Horregatik, eskerrak eman dizkiete ekimen honekin bat egin duten herritarrei eta Nafarroa hegoaldeko produktuak ekoizleengandik zuzenean gurrera ekartzeko sarea handitzen laguntzeko eskatu diete, azken batean horixe duelako Errigorak helburu nagusizat: hemen bertako produktuak eguneroko kontsumo ohituretara ekartzea, eta urruneko ordez, urte osoan hemengo jakiak kontsumitzeko prest daudenen sarea osatzea ([www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)).

Nafarroa hegoaldeko ekoizleei laguntzeko sortu zuten Errigora ekimena, hango produktuak herriz herri, ekoizlearen jatorrizko prezioan eskainiz, elikadura subiranotasuna sustatzeko eta merkatu globalizatuari aurre egiteko. Lurraldetasunaz eta kontsumo arduratsuz gain, baina, beste balore batzuk ere lantzen ditu Errigorak. Izan ere, euskara sustatzea, Nafarroako euskalgintza hauspo-tzea eta herrigintza eta auzolana garatzea ere badira ekimen honen helburu edo erronkak. Produktu guztiak euskaraz etiketatzen dituzte, eta auzolanean zabaldtu. Joan zen udazkeneko kanpainan, esate baterako, Euskal Herri osotik joandako 120 lagun baino gehiago batu ziren Abiltasen, auzolanean saskiak prestatzeko, eta, bide batez, herrialde eta eskualde desberdinetako euskaltzaleek elkar ezagutzeko aukera ere izan zuten, Ane Guillo Elgoibarko Errigora taldeko kideak nabarmendu duenez.

### Hiru kanpaina urtean

2013ko udazkenean egin zuten lehen kanpaina. Elikagai saskiak banatu zituzten orduan, eta izan zuten arrakasta ikusita, urte berean, udazkenean, olio banatzeari ekin



Oier Narbaiza, Auritze Maiora, Jon Etxeberria eta Ane Guillo Elgoibarko Errigora taldekoak.

zioten. Ordutik, urtean hiru kanpaina egiten dituzte: Eguberrietakoa, oliba-olioarena martxoan eta kontserbena ekainean, eta hirurak dira bereziak. Eguberrietan, Nafarroako produktuen otzarak banatu zituzten, *Nafarroa hegoaldeko uzta euskarari puzka* lelo hartuta. Merkatuko prezioan saldu zituzten produktu haiek, baina batutako diruaren %25 Nafarroako eremu-az euskalduneko hainbat proiektuari laguntzeko erabili zuten. Beste bi kanpainetan, olioarenean eta azkena egin duten kontserben kanpainan, indar handiago egin dute kontsumo ohiturak aldatzean, kontsumo arduratsua sustatzean. Zuzenean egin dute salmenta oraingoan ere, bitartekorik gabe, eta bitartekariak desagertuta, ekoizleentzat dira lortutako etekin guztiak.

### Eskariak egiteko

Elgoibarren hainbat elkarte, erakunde eta enpresak egin dute bat Errigorarekin, besteak beste AEK-k, Ikastolak eta Dano-

bat eta Rodisa enpresetako beharginek, baina orain herri batzorde bat ere badago, lau lagunez osatutakoa —Mendaron ere badago sare bat—. Haiek bideratzen dituzte eskariak eta eurek arduratzen dira eskatutakoak banatzen. Kultur Etxeko Sotoan banatu izan dizkiete orain arte jakiak eskatzaileei, baina azaroko banaketa Merkatu Plazan egingo dute. Eta pozik daude leku-aldatzearekin batzordekideak, “bistarago eta merkatariegangandik gertuago” egongo direlako. Pozik daude, era berean, orain arte ekimen honek izan duen harrerarekin. Bezero batzuk fidelizatzeaz gain, berriak ere egin dituzte eta sinistuta daude kontzientziaziorako ere balio izan duela egingo lanak. Horren harira, saltokietara doazenean ere produktuen etiketei erreparatzeko eskatu diete herritarrei; kontsumitzeko bertako jakiak, kalitatezkoak, era horretan etekina hemen bertako ekoizleek jasoko dutelako.



## San Joan jaiak ospatuko dituzte berriz Altzolan, bi urteko etenaren ostean

Ekainaren 23tik izango dira jaiak

**B**i urteko etenaren ostean, San Joan jaiak ospatuko dituzte berriz Altzolan. Azken bi urteetan zailtasunak izan dituzte jaiak antolatzeko, baina aurten ahalegin berezia egin dute sanjoanak berreskuratzeko. Ekainaren 23an hasiko dira jaiak, San Joan bezperan, eta ekainaren 28ra arte iraungo dute. Tradizioari jarraituz, San Joan zuhaitza jarriko dute Karmen plazan jaiei hasiera emateko, eta gauean, San Joan su erraldoia piztuko dute Deba ibaian. San Joan Egunean, berriz, San Joan adarra jarriko dute etxeetako atarian, eta berrikuntza modura, Altzolako bainuetxera bisita gidatua egingo dute hilaren 25ean. Barixakuan, gazteen eguna ospatuko dute, zapatuan herri-bazkaria izango da, eta domekan bukatuko dira jaiak. Egitarau guztia agendan ikusi dezakezue.



### Udako txokoen luzapena eskainiko du Elgoibarko Izarrak

Uztailean eta irailean, udako txokoen luzapena eskainiko du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak. Uztailearen 27tik 30era, eta irailearen 1etik 4ra izango dira. Elgoibarko Izarrako bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, berriz, 32 euro. Interesatuak ekainaren 29ra arte daukate izena emateko aukera. Informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrara deitu (943 741 626).

### Udal Musika Bandak Guardian joko du asteburuan

Elgoibarko Udal Musika Banda Guardiara joango da asteburuan. San Joan eta San Pedro Jaiak ospatzen dira Guardian, eta jaien aurrerapen modura, Elgoibarko Udal Musika bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu bihar. Kalejira 11:00etan izango da eta kontzertua 13:00etan eskainiko dute herriko plaza nagusian.

### Ballet jaialdia gaur, Mendaron

Ballet jaialdia antolatu dute gaur gauerako Mendaron. *Juke box*, zure aukera izena jarri diote jaialdiari, eta 28 neskatok hartuko dute parte. 22:00etan izango da, Goñati frontoian.

### Irrien Lagunak gaur zortzi, Maalako parkean

Atxutxiamaika Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak antolatuta, Irrien Lagunak etorriko dira datorren barixakuan Elgoibarrera. 17:30etik aurrera, eurekin abestu eta dantza egiteko aukera izango da, Maalako parkean.

## 'Bohemioen kluba' estreinatuko du Taupadak gaur, Herriko Antzokian

Taupada antzerki taldeak *Bohemioen Kluba* obra estreinatuko du gaur gauean Herriko Antzokian. Parisiko Montmatre auzoan kokatuta dago ikuskizuna, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Bizirik irautea lortu dutenekin batzen da Madame Edith gauero, eta bakoitzak bere bizitzaren gorabeherak kontatuko dizkio. Melodrama eta umore beltza generoak lantzen ditu obrak, absenta ukitu batekin. 22:30ean hasiko da ikuskizuna, eta 80 minutuko iraupena izango du.

## Institutuko bost ikaslek eskuratu dituzte aurten ohorezko matrikulak



Elgoibar BH Institutuko Batxilergoko ikasleek bukatu dute ikasturtea, eta dagoeneko ikasbidaiaz gozatzen izango dira Malta. Aurten, Batxilergoko bost ikaslek eskuratu dituzte ohorezko matrikulak: Leire Legarra, Nora Kortaberria, Iñaki Amilleta, Andrea Arregi eta Maddi Astigarraga. Datorren barixakuan, ekainaren 26an, ikasturteko diploma banaketa ekitaldia egingo dute.

## Gaur zortzi jokatuko dute Nahaste Borraste herri-proba, 19:00etatik aurrera

Kalegoen plazatik abiatuko dira parte-hartzaileak

**K**imetz elkarteak antolatuta, datorren barixakuan jokatu dute Nahaste Borraste herri proba. 19:00etatik kanpaikadekin batera hasiko da proba, Kalegoen plazan. 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta izenematea Kimetz elkartearen egin behar da, proba hasi aurretik.

Nahaste Borrasteko parte-hartzaileek hiru probatan lehiatu behar izaten dute. Hasteko, zazpi kilometro inguru egin behar izaten dituzte bizikletan, eta ondoren, Kalegoen plazan 25 kiloko zakua bizkarrean hartu (15 kilokoa emakumezkoek) eta 400 metro egin behar izaten dituzte korrika, San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena. Azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu behar izaten dute antxitxika.

laz 51 lagunek hartu zuten parte, eta Jorge Gonzalez eta Ainhoa Lendi-



nez izan ziren irabazleak. Proba honetako denborarik onena Iñigo Larizek ezarri zuen 2012an, eta 18:01ean dago

errekorra. Aurten ere, denbora hori hobetzeko ahalegina egingo dute partaideek.

## 300 bat lagun bildu ziren CD Elgoibarren denboraldi amaierako festan



Paella jana antolatu zuen CD Elgoibarrek, aurtengo futbol denboraldiari amaiera emateko. Joan zen zapatuan batu ziren jokalaria, entrenatzaile eta gurasoak Maalako parkean, eta giro ezin hobean pasatu zuten eguna. 300 bat lagun batu ziren bazkari-tarako, eta arratsaldean herritar asko hurbildu ziren festara. Bazkalostean denboraldiko jokalaria aipagarrienen sariak banatu zituzten.

Aurtengo denboraldia ixteko, CD Elgoibarrek ekainaren 25ean egingo du urteko batzar orokorra, 19:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko diete bazkideei, eta kirol alorreko balorazioa ere egingo dute.

## 307 umek hartuko dute parte udako kirol jardueretan

Kirol Patronatuak ekainaren 24tik uztailearen 21era antolatu dituen kirol ikastaroetan 307 haur eta gaztek hartuko dute parte: kirol kanpusean 217 haur eta gaztek eman dute izena, goi mailako kanpusean, aldiz, 19k eta udako kirol kanpusean 198k. Horrez gain, zumbakrosfit ikastaroan 30 gaztek parte hartuko dute, aerobik txikian 20 hurrek eta igeriketa ikastaroetan 40k.

Kirol jarduera hauek Mintxetan, Olai-zagan, IMH kiroldegian eta Ikastolako frontoian egingo dira.

## Nesken binakako raketa txapelketa Mendaron

Nesken binakako raketa txapelketa antolatu dute Mendaron, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Ekainaren 21era arte eman daiteke izena udaletxean edo 629 932 458 telefonora deituta.

# Amaia eta Jone Loiola eta Sonia Tomas eta Idoia Arrillaga, pala finalera

Gaur jokatuko dute partida, 18:30etik aurrera

Emakumezkoen binakako pala txapelketa iritsi da amaierara, eta gaur arratsaldean jokatuko dute finala. Jone eta Amaia Loiola eta Sonia Tomas eta Idoia Arrillaga bikoteek jokatuko dute azken partida, eta hortik irtengo da txapelketako irabazlea. Antolatzaileek egitarau berezia prestatu dute final nagusirako, eta 18:30ean hasiko dira ekitaldiak. Musika izango da lehenik, eta gero neska eta mutilen osatutako bi bikoteek jokatuko dute partida, irailean hasiko den pala misto txapelketaren aurrerapen modura. Aintzane Arizmendi eta Ander Conde eta Nerea Iruña eta Kepa Arizabalagak jokatuko dute. Partida hori amaitzen denean errifaren



Urdinez, Jone eta Amaia Loiola finalistak

zozketa egingo dute (irabazleak bi lagunentzako afaria irabaziko du Ibai-Ondo jaitezearan). Azkenik, emakumezkoen pala txapelketako finala jokatuko dute.

## Le Manseko 24 orduak irabazi dituen Porschea garatzen lagundu du Imanol Leizabek



Nico Hülkenberg, Earl Bamber eta Nick Tandy gidariek gidatutako Porsche 919 Hybrid autoak irabazi zuen domekan Le Manseko 24 orduak auto lasterketa. Imanol Leizabe elgoibartarrak izan du zerikusirik Porsche etxeak lortutako arrakastan, izan ere, autoaren aerodinamikaren garapenean aritu baita lanean. 1998. urteaz geroztik Le Manseko 24 orduak proban lortu duen lehen garaipena izan da hau Porsche etxearantz. Imanol Leizabe elgoibartarrak urte eta erdi darama lanean Porsche Motorsport-eko LMP1 taldean, Stuttgarten (Alemania). Aerodinamikaren garapenez arduratzen den lantaldean dihardu lanean, hain zuzen ere. Honela azaldu digu Alemaniatik bere lana zein den: "Autoaren aurrealdean aritu naiz lanean bereziki. Ordu dezente sartu ditut aurreko splitterra hobetzeko lanean, baina kotxeko beste hainbat zati hobetzen ere jardun dut. CFD (Computational Fluid Dynamics) simulatzailea erabiliz aerodinamika garatzean datza nire lana. Ideia berriak garatuz batzuetan eta sortuta daudenak hobetuz eta optimizatuz besteetan".

## Imanol Osoro Gipuzkoako txapelkun Hiru Txirlo txapelketan

Imanol Osoro Aiaziako bolo jokariak irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa, Azkoitin jokatu zuten finalean. Bosgarren lekuan iritsi zen Osoro finalera, eta sorpresa eman zuen azken jardunaldian. Aiaziarrak sei txirlo bota zituen hiru jaurtialditan, eta 39 punturekin, berak jantzi zuen txapela.

## IMH kiroldegiko kantxa alokatzeko aukera dago

Herritarrek IMH kiroldegiko kantxa alokatzeko aukera izango dute aste barruan. Lau ordu jarriko ditu Patronatuak alokairuan: astelehenean eta asteartetan 19:30etik 20:30era, eta asteazkenean eta ostegunetan 19:15etik 20:15era. Alokairuak hila-betekoak, hiruhila-betekoak edo urte osokoak izango dira, eta zozketa bidez banatuko dituzte. Zozketa uztailaren 2an egingo da, 19:30ean, Olai-zaga kiroldegian.

## Usurbilgo judo txapelketan izan dira Egokran taldekoak

Usurbilgo judo txapelketa jokatu zen joan zen domekan, eta Elgoibarko Egokran taldeko judokak ere han izan ziren. Benjamin mailako txapelketan hartu zuten parte elgoibartarrak. Partaide bakoitzak hiru borrokaldi izan zituen, eta Egoitz Mora Egokran taldeko arduradunak jakinarazitaokoaren arabera, "ondo" aritu ziren gaztetxoak. Mora pozik itzuli zen txapelketatik, eta Elgoibarko judo harrobia sasoiko dagoela gaineratu zuen.



LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, 09:00etatik 16:00ak bitartean. ☎ **680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **631 832 767**
- Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. ☎ **685 724 861 / 943 748 899**
- Neska eskaintzen da sukaldari lanetarako, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ **633 357 538**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, orduka. ☎ **653 156 403**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka. ☎ **616 457 254**
- Neska euskalduna eskaintzen da portalak garbitzeko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da, interna, etxeko lanak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **606 641 609**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. ☎ **626 914 904**
- Mutila sukaldari laguntzaile (elikagaiak manipulatzeko tituluarekin) edo zerbitzari lanetarako prest. Behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest (ikasketak egiten). ☎ **661 064 027**
- Neska eskaintzen da orduka, interna edo externa, umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **635 189 294**
- Neska eskaintzen da garbiketara lanetarako edo nagusiak zaintzeko. Ordezkapenak egiteko prest. ☎ **638 338 816**
- Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko. ☎ **634 209 087**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Arduratsua eta esperientziarekin. ☎ **620 258 708**
- Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketara lanetarako. ☎ **606 007 742 (Fatima)**
- Mutila eskaintzen da etxebizitza edo lokaletan igeltsero eta mortero lanak egiteko edo gotele-a kentzeko. Prezio onean. ☎ **658 577 563**
- Atzeriko hizkuntzan diplomatuak ingeleseko klase partikularrak ematen ditu. Ekaina eta uztaila. HH, LH eta DBH. ☎ **659 024 427**
- Mutila eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketara lanetarako edo baserriko lanetarako. ☎ **686 077 316**
- Matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen dira DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. ☎ **685 706 001**
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta baita garbiketara lanetarako ere. ☎ **636 517 025**
- Cambridge FCE azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa ematen da uztailean, goizez. Informazio gehiago: [fce.uztaila@gmail.com](mailto:fce.uztaila@gmail.com) ☎ **673 364 623**
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta berehala hasi naiteke lanean. ☎ **686 077 564**
- Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko zein garbiketara lanetarako. ☎ **632 878 035**
- Neska eskaintzen da gaeuz adinekoak zaintzeko. Asteburuetan lan egiteko ere prest. ☎ **631 124 942**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. ☎ **638 338 816**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta portalak garbitzeko. Orduka eta gaeuz ere lan egiteko prest. Gidabaimena daukat. ☎ **631 343 232**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. ☎ **676 444 813 (Maria)**
- Emakume euskalduna eskaintzen da haurrak

zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo zerbitzari lanak egiteko. ☎ **639 054 041**

ESKAITZA

- Elgoibarko taberna baterako langileak behar dira, sukaldaroko eta barrarako. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Bidali CV argazkiarekin: [tabernalan@gmail.com](mailto:tabernalan@gmail.com)
- Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. CV bidali **Gautxo tabernara**.

ETXEBIZITZAK

- Pisua salgai San Bartolome kalean, (7 zenbakia, 2. pisua). Bi logela, egongela, sukalde, bainugela eta trastelekua. Egoera eta prezio onean. ☎ **665 716 443**
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **616 649 503**

GARAJEAK

- Babes ofizialeko bi logelako pisua, hiru logelako arengatik aldatuko nuke. Gabriel Krutzelaegi kalean dago etxea. ☎ **628 115 677**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Auto baten-tzako lekua. ☎ **699 812 566**
- Garaje irekia saltzen da ikastolako aldapan. 13m2. Merke. ☎ **666 40 28 30**

BESTELAKOAK

- Sofa salgai. Ia berria. Tela iragazgaitza. ☎ **628 115 677**
- Ohe artikulatua salgai. 1,05 neurrikoa, oso gutxi erabilia. ☎ **656 738 884**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Eraikitzen ari diren eraikin batean etxebizitza bat erosteko kontratua sinatu berri dut eta kontratuak dio okerrik ezean hilabeteko epean amaituko dutela obra. Nire zalantza ondorengo da: nola jakin dezaket etxea hitzartutako egunerako emango didaten ala ez?**

Klausula horietan enpresak normalean ez du zehazten etxea noiz emango duten, noizko amaiteza espero duten baizik. Normalean beti zehazten dute, gainera, eurek nahi gabekoak ere gerta daitezkeela eraikitze prozesuan eta horrek zaildu egingo lukeela etxea aurreikusitako epean ematea.

Etxea emateko bizigarritasun baldintzak betetzen direla ziurtatu behar du enpresak. Bestela, arau-hauste bat litzateke. Gainera, enpresa eraikitzaileak bere gain hartu beharko ditu etxea sasoirako ez ematearen ondorioak. Halakotan, erosleak bertan behera utzi dezake kontratua edo kalte-ordainak eskatu.

Kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko bi gauza hartu behar dira kontuan: etxe saltzaileak eta erosleak hitzartu duten epea eta zehazki noiz ematen den etxea.

**AHOLKUA: Zigor klausularik ez baldin badago, badago modu bat kalte-ordaina eroslearen aldekoa izan dadin. Kalte errealka eta objektiboak baloratzea, eta etxea eman bitartean erosle horrek alokairuagatik zenbat ordaindu behar izan duen kalkulatzeko.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak, gure **potxolinal** Dagoeneko 3 urte! Patxo potolo bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Markel!** Atzo 8 urte, txapeldun. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Aimar,** ekainaren 15ean 4 urte bete zenituelako! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Danelen partez.



• Bihar Pikupeko famaun urtebetetzia. Zorionak, **Markel!** Ondo pasa eguna. Bi muxu handi Elgoibarko sorginen partez.



• Zorionak, **Malen** gaur zure zortzigarren urtebetetzea delako! Ondo pasa! Muxu asko familiakoen, eta bereziki, Juneren partez.



• Zorionak, **printzesa!** 4 urte bete dituzu! Patxo handi bat familia osoaren eta, bereziki, Goizalderen partetik!



• Zorionak, **Elene,** urtetxo bat egin duzulako. Txokomarrubizko muxu handi bat, etxeko guztien, eta bereziki, Janireren partez.



• Zorionak, **Alaine,** etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu! Txokolatezko muxuak! Eskerrik asko hain berezia izateagatik.



• Zorionak, **Malen,** gaur 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Garaziren partez.



• Zorionak, **Ander,** zure 4. urtebetebetzean. Etxekoen eta bereziki asko maite zaituen Markelen partez. Muxu handi bat, txapeldun!



• Zorionak, **Maria,** astelehenean 4 urte potolo egin zenituelako. Muxu asko etxekoen eta, bereziki, Elenaren partez.




• Zorionak, **Lander!** Gaur, 3 urte, txapeldun. Oso ondo pasa eguna.



• Zorionak gure bihotzei! Aurten ere ekain magiko eta alaia izan dugu! Patxito mila.



• Zorionak, **bikote!** Irtsi da zuen ezkontza eguna. Zorionsu izan! Etxekoen partez.



• Zorionak, **bikote!** Zuen egun handia ospatuko dugu bihar! Ederki pasatuko dugu! Koadrilakoak.



## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **4'50€**  
Argazki bikoitza: **7€**  
Hirukoitza: **9€**  
Hiru lagunetik gorako taldeak: **15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **3'50€**  
Argazki bikoitza: **6€**  
Hirukoitza: **8€**  
Hiru lagunetik gorako taldeak: **12€**

### Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeko bulegora,  
edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
e-postara bidali.



## GARBIÑE IRIONDO ARISTONDO

2015eko ekainaren 13an hil zen.

*“Behelainoa bezala, bailararen sakonetik zerurantz egin duzu hegan”*

Sanatana Dharma Yoga Eskola



## 19 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kiritbil

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

### Dantza

22:00 Ballet jaialdia

Mendaroko frontoian.

### Antzerkia

22:30 'Bohemioen kluba'

Taupadak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 20 zapatua

### Kirola

10:30 Eskubaloia Eguna

Sanlok antolatuta, Kalegoen plazan jokatuko dituzte partidak.

## 23 martitzena

### Skigain jaia

19:00 Kalejira, Maalatik

Sallobentera

20:30 Afari-merienda

22:00 Sua, Sallobenten

Elgoibarko Izarrak antolatuta.

### Udako solstizioa

21:30 San Joan sua

IMHko bidegurutzean eta Goiko Errota zubiaren bueltan.

22:30 San Joan sua

Mendaroko Herriko Enparantzan.

## 26 barixakua

### Aisialdia

17:30 Iriren lagunak

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

### Kurtso amaiera

19:00 Diploma banaketa

Elgoibar BH Institutuko diploma banaketa. Herriko Antzokian.

### Kirola

19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da proba.

## SAN JOAN JAIK ALTZOLAN

### 23 MARTITZENA

San Joan bezpera

14:30 Txapliguak

14:45 Kanpai jotzea

20:00 Salbea: Santuari

festetako zapia jartzea

Jarraian pintxo-askaria

21:00 San Joan zuhaitza

jartzea

22:00 San Joan sua ibaian

### 26 BARIXAKUA

11:00 Zezen mekanikoa

eta puzgarriak

18:00 Kalejira eta pintxoak

22:00 DJ's Session

### 27 ZAPATUA

13:00 Txapliguak

14:30 Herri bazkaria, Javi

Ruiz kantariak girotua

22:00 Karaokea

### 24 EGUAZTENA

San Joan Eguna

10:00 Herriko portaleetan

San Joan adarra jartzea

11:00 Prozesioa eta meza

santua (Parrokiako

koruaren laguntzarekin)

16:00 Umeentzako jolasak

19:00 Sardina banaketa,

trikitilariak alaitua

### 25 EGUENA

San Joan Txiki eguna

Bisita gidatua altzolako

Bainuetxera.

16:30 Umeentzako

eskulanak

19:30 Txokolatada



### GUARDIAK

### BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
19 Ibañez 20 Garitaonandia 21 Garitaonandia 22 Etxeberria 23 Fernandez 24 Yudego 25 Fernandez 26 Barrenetxea	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

Ekainaren 22tik 24ra  
ez da ludoteka  
zerbitzurik egongo.  
Ekainaren 25etik 27ra  
Zuhatzara irteera  
izango dugu!



Astelehenetik aurrera  
udako planekin  
hasiko gara;  
egutegi, ordutegi eta  
ekintza bereziekin!



# UDA HONETAN ZATOZ **ZEN** EGITEIRA

eta nuke, baleki, zenekien...

zitzaion  
dezakezu  
litzaidake

genekien  
zetorren  
naitzake

AURKI EZAZU  
ZURE BARNEKO OREKA,  
EUSKARAREN BIDEZ

eman izena  
Gipuzkoako euskaltegietan



**IES Elgoibar-Arreiturre BHI**

**DBHko eta  
BATXILERGOko  
matrikulazio epea**

**ekainaren 22tik uztailaren 6ra**

**Bulegoko ordutegia:  
09:00tatik 13:00etara**

Telefona: 943 748 397 E-posta: 013431@hezkuntza.net  
[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

